

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure proiektuan, funtsezko elkarteak izango ditugu gure hozkailu adimendunaren kalitatea eta fidagarritasuna bermatzeko. Horretarako, Samsung eta Bosch markekin lan egingo dugu, biak teknologian eta etxetresna elektrikoetan erreferenteak direlako.

Samsung-ek hozkailuaren teknologia adimenduna eta sistema teknikoa eskainiko ditu, hala nola pantaila interaktiboak eta konektibitatea. Guk geuk sortutako aplikazioarekin batera, erabiltzaileek hozkailua modu erraz eta intuitiboan kudeatu ahal izango dute.

Bestalde, Bosch-ek hozkailuaren kalitatea, segurtasuna eta iraunkortasuna bermatuko ditu. Bere esperientziari esker, hozkailua sendoa eta fidagarria izango da, eguneroko erabilerarako egokia, batez ere familientzat eta adinekoentzat.

Laburbilduz, Samsung eta Bosch bezalako markekin egindako lankidetzari esker, eta gure aplikazio propioarekin, hozkailu adimendun erabilerraza, kalitatezkoa eta fidagarria eskainiko dugu, bezeroen konfiantza irabazteko.

Hozkailu adimendun honek eta haren aplikazioak erosketak errazten ditu, alferrikako erosketak saihesten ditu eta elikagaiak modu eraginkorrean kudeatzeko aukera ematen du. Sentsoreak, kamerak, pantaila interaktiboa, software adimenduna eta marka ezagunen kolaborazioa uztartuz, sistema bat sortzen dugu, erabiltzaileari bizitza erosoagoa eta jasangarriagoa eskaintzeko.